

Arriskuaren aurrean bakardadean

Azken urteotako garapen azkarra ikusita, osasun-ikerlariak harriturik eta kezkatutik azaldu dira. Garapenaren abiaduraz eta honek sor ditzakeen bigarren mailako ondorioez kezkatuta, hain justu. Frantziako Osasunaren eta Medikun-

jasaten duten presioaz mintzo dira ikerlariak. Zehazki, tratamendu berriek izan ditzaketen ondorioak egiaztatzerik ez dutela izaten salatu dute ikerlariak. Institutuko Jean Rosa ikerlariak adierazi zuenez, "osasun-teknikek ate asko zabaldu dizkigute. Aitzitik, atearen atzean zer dagoen begiratzeko astirik ez dugu izan eta, halabeharrez, bertatik eramaten ditugu gure pazienteak. Zoritxarrez, ezin ditugu ohar-tarazi ez baitugu tra-

deskribapen xehetua egitea baino ikerlariak ohar-taraztea da.

Difteria, itzuli den mamua

Orain arteko joera nagusia gaixotasunaren hedadura kontrolatzea eta ahal izanez gero murriztea izan bada ere, difteria kasu berriak ezagutu dira Errusia eta Sobietar Batasuna zeneko lurraldeetan eta argi gorria piztu da. Aurten ezagutarazi dituzte azken bi urteotan difteriak izan duen portae-rari buruzko datuak. Difteriaren hedadura handiagotu egin dela esan daiteke zalantzarik gabe. Iaz Sobietar Batasuna zeneko herrialdeetan 47.802 kasu berri detektatu zituzten eta 1.746 lagun hil egin ziren difteriak jota. Ikerlarien iritziz, populazio-mugimendu handiak gertatu izanak azal lezake gaur egungo egoera. Epidemiari aurre egiteko neurririk, ordea, ez da oraindaino ezagutzera eman. **EEBB**etako **Gaixotasun Kutsakorren Ikerketarako Zentruan** jaso dituzte datuak eta gaixotasuna kontrolik gabe hedatzen ari dela baieztatatu dute. Epe laburrean neurririk hartu ezean, inguruko lurraldeetara iritsiko omen da difteria. Arrisku-guneetat jo dituzte Bulgaria, Finlandia, Alemania, Polonia eta Norvegia.

Prostatoko minbizia eta fruta

Prostatoko minbizia gerarazteko sendabide berria aurkitu dute Michigango Unibertsitatean. Orain arte laborategiko arratoiekin baino ez dute esperimentatu, baina lortu dituzten emaitzak baikor azaltzeko modukoak dira. Pektina da prostatoko minbizia sortzen duen zelula-ugalketa atzerarazten edo geldiarazten duen substantzia gelifikatzailea. Elikagai eta botiketan erabiltzen da eta barazki zein frutetan aurkitzen da, bereziki laranja- eta sagar-azaletan. Pektina alkalinoekin eta azidoekin nahasi ondortzen den substantzia berria disolbagarria da. Prostatoko minbizia zuten arratoiengan erreakzio harrigarriak sorrarazi zituen substantzia berriak. % 40an zelulen ugalketa erdira ekerrarazi zuen eta gainerakoetan erabat geldiarazi. Substantzia berria gizakiekin probatzeko asmoa eta gogoa azaldu dute ikerlariak. **EEBB**etako Osasun Sailak plazaratu dituen datuen arabera, prostatoko minbizia etengabe hedatzen ari da, 240.000 kasu berri urteko eta gaur-gaurkoz ez zaio sendabiderik aurkitu.



Merkatuaren eskakizun-maila altuegia dela eta osasun-teknika berriak merkaturatzeko orduan jasaten duten presioaz mintzo dira ikerlariak.

tzaren Garapenerako Institutuak, **INSERM** delakoak, osasun-tekniken garapenari buruzko txostena plazaratu zuen Martxoan, polemika horri buruzko datu berriak eskainiz. Merkatuaren eskakizun-maila altuegia dela eta osasun-teknika berriak merkaturatzeko orduan

tamendu berrien arrisku potentziala ezagutzen". **INSERM**ek plazaratu berri duen txostenak hiru tratamendu-multzo nagusi bereiztu ditu: geneetan oinarrituriko terapia, organo-transplantea eta inplantazioak. Hiru multzootan kontraindikaziorik zehaztea lortu bada ere, ondorioen nolakotasuna ez da oraindik ezagutzen. **INSERM** Institutuko bozeramaileek esan duteenez, txostenaren helburua ondorio posibleen